



Iturria: *Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Sebastian Mendiburu
(Patxi Altunaren edizioa). Euskaltzaindia, 1982.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MendiburuDoktrina.htm>

KRISTAUAREN DOKTRINA

Sebastian Mendiburu

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

KRISTAUAREN DOKTRINA

+

A. M. D. G.

Catecismo del P. Gaspar Astete
traducido en bascuense por el P.

Sebastian de Mendiburu

y revisado por el P. Manuel

de Larramendi,

ilustres varones y claros escritores

los tres

de la Compañía de Jesús.

Egillearen berri ematen da

Urrezko liburutxo, jakintsuen artean ain ezagun, eta estimatu onen egillea, izan zan Aita Gaspar Astete, Salamancako semea, ta Jesusen Konpañiakoa, zeñean sartu zan 18 urtekoa, ta 1555 urtean. Izan zan gizon siñalatua, ala jakintasunean, nola birtutean, ta zeruak eman zion eskualdi paregabea, gazteen eziera onerako: ta atera zituen orretarako libru txit autetsiak mutill gazteentzat, ta berezkiro donzellentzat, ezkondu, ta alar-gunentzat. Izandu zan Teologiako Maisu, ta Nobiziaduko Agintari. Salamancako Kolejioan bizi zala, ango Erretore Aita Martin Gutierrez benegarriak iduki zuen Jaungoikoaren argi andi ura, zeñak erakutsi zion nola aren mendeko guziak arkitzen ziran Bizitzako Libruan izendaturik, zerurako autetsiak bezala. Berri on au lenbiziko jakin zuena izan zan Aita Gaspar guziz dohatsua, zeña heriotza santu batekin ara igo zan Burgosetik Abuztuaren 30ean 1601. urtean.



Egin zituen beste liburuen batzuek ere; baña guzien artean osperik andienekoa da libru txikitxo au, zeña erdaraz, ta euskaraz ateratzen da garbiro Aita Asteterenaren gisa, ta ala ezer kendukizunik ez du, dagoelako osotaoro, Inkisizioak Abenduaren 8an 1736 urtean agindu zuenaren arabera.

Kristauaren Doktrinako sarrera

Kristau fiel guziak
daude txit obligatuak
artzera debozioa
beren bihotz guztitik
Jesus gure argiaren
gurutze santuarekin;
bada an hill izan nai zuen
gu erosi, ta ateratzearren
gure pekatuen mendetik,
eta etsai gaiztoetatik.
Orregatik, bada,
oitu bear zera,
ala ziñatzera,
nola santiguatzera
hiru gurutze egiñaz,
lenengoa bekokian,
Jainkoak libra gaitzan
pensamen gaiztoetatik,
bigarrena aoan
Jainkoak libra gaitzan
hitz gaiztoetatik,
hirugarrena bularrean,
Jainkoak libra gaitzan
egite, ta gogo gaiztoetatik
gisa onetan esanaz:
Gurutze Santuaren
+ siñaleagatik
geren + etsaietatik
libra gaitzazu

+ gure Jaungoikoa.
Aitaren, eta Semearen,
eta + Espiritu Santuaren
izenean. Amen.

Aita gurea

Aita gurea, zeruetan zaudena, santifika bedi zure izena, betor guga-na zure Erreinua. Egin bedi zure borondatea, nola zeruan, ala lurrean. Egun iguzu geren egunoroko ogia. Eta barka zaizkigutzu geren zorrak, guk geren zordunai barkatzen dieztegun bezela, eta ez gaitzatzula utzi tentazioan erortzen, baizik libra gaitzatzu gaitzetik. Amen.

Ave Maria. Agur Maria

Ave Maria, graziaz betea. Jauna da zurekin, bedeikatua zera zu andre guzien artean, ta frutu bedeikatua da zure sabeleko Jesus. Santa Maria Jaungoikoaren Ama, erregu ezazu gu pekatariok gatik orain; ta geren heriotzako orduan. Amen.

Sinismena

Sinisten det Aita Jaungoiko guziz ahalsuan, zeru ta lurraren egilleen Eta Jesu Kristo gure Jaunaren Seme bakarrean, zeña sortu izan zan Espiritu Santuaren egitez, ta graziaz; eta jaio zan Maria Birjiñagandik, padezitu zuen Ponzio Pilatoren bean; gurutzean josirik, hill, ta lurrari emanik, infernuetara jatxi zan, hirugarren egunean hillen artetik piztu zan; zerue-tara igo zan; dago jarriarik Aita Jaungoiko guziz ahalsuaren eskuieko alde-tik; etorri bear du andik biziak, eta hillak juzgatzera. Sinisten det Espiritu Santuan, Eliza Santa Katolikoa, Santuen Komunioa, pekatuen barkazioa, aragiaren piztuera, bizitza betikoa. Amen, edo ala da.



Salbea

Jainkoak salba zaitzala Erregiña Ama miseriakordiazkoa, bizitza, gozotasuna, esperanza gurea. Jainkoak salba zaitzala, zure deiez gaude Ebaren urne erbestetuak, zugana zispiratzen degu, adiaka, ta negarrez gaudela ibar negarrezko onetan. Ea, bada, bitarteko gurea, zure begi miseriakordiazko oriek biur itzatzu gugana, eta deserri onen ondoren erakutsi zaguzu Jesus zure sabeleko frutu bedekiatua. O guziz beraa! O urrikalsua! O Maria Birjiña gozoa! Erregu ezazu gugatik Jainkoaren Ama Santa, dogaiak egin gaitezen Jesu Kristoren eskeñien. Amen. Ala biz.

JAUNGOIKOAREN LEGEKO AGINTEAK DIRADE AMAR

Lenbiziko hirurak dagozkio Jainkoaren honrari, beste zazpiak geidearen onari.

Lenbizikoa da Jainkoa onestea gauza guzien gañean.

Bigarrena, Ez juramenturik egitea, aren izen santua alferrik, edo utsean artuaz.

Hirugarrena, Jaiak santu egitea.

Laugarrena, Aita, ta Ama honratzea.

Bostgarrena, ez hilltzea.

Seigarrena, aragizko pekaturik ez egitea.

Zazpigarrena, ez ostutzea.

Zortzigarrena, gezurrezko testimoniorik ez egotea ta ez gezurrik esatea.

Bederatzigarrena, geidearen emazterik ez deseatzea.

Amargarrena, besteren ondasunik ez deseatzea.

Amar aginte oiek sartzen dira bitan: Jainkoa serbitu, ta onestean gauza guzien gañean, ta zure geidea zere burua bezela. Amen, edo ala biz.

FEDEKO ARTIKULOAK DIRA AMALAU

Lenbiziko zazpiak dagozkio Jaungoikotasunari: ta beste zazpiak Jesu Kristo gure Jaun, Jainko, ta gizon egiazkoaren Gizatasun Santuari.

Jainkotasunari datozkionak dirade oiek:

Lenbizikoa, sinistea Jainko bakar guziz ahalsu batean.

Bigarrena, sinistea Aita dala.

Hirugarrena, sinistea Semea dala.

Laugarrena, sinistea Espiritu Santua dala.

Bostgarrena, sinistea Egillea dala.

Seigarrena, sinistea Salbatzallea dala.

Zazpigarrena, sinistea Glorifikatzalle, edo sari emallea dala.

Gizatasun Santuari datozkionak dirade oiek:

Lenbizikoa, sinistea gure Jesu Kristo Jauna, gizona danez, sortu izan zala Espiritu Santuaren egitez.

Bigarrena, sinistea jaiotza zala Santa Maria Birjiñagandik, berau Birjiña zala jaiotza baño len, jaiotzan, ta jaiotza ezker.

Hirugarrena, sinistea artu zuela heriotza, ta pasioa, gu pekatariok salbatzeagatik.

Laugarrena, sinistea jatxi zala infernu, edo beko lekuetara, ta atera zituela guraso santuen animak, aren etorrera santuaren begira zeudenak.

Bostgarrena, sinistea hirugarren egunean piztu zala hillen artetik. Seigarrena, sinistea igo zala zeruetara, ta an dagoela eseririk Aita Jainko guziz ahalsuaren eskuieko aldetik.

Zazpigarrena, sinistea etorriko dala biziak, eta hillak juzgatzer: esan nai du: onai gloria emateko, zeren aren aginte santuak gorde zituzten: ta gaiztoai pena betiraunak, zeren gorde etzituzten. Ala da, edo Amen.

Kristauaren Doktrinako Deklarazioa, galdeaz, eta eranzueraz

GALDEA: Zerade Kristaua?

ERANZUERA: Bai, Aita, Jainkoaren graziaz.

G. Nondik dezu Kristauaren izen ori?

E. Jesu Kristo gure Jaunagandik.

G. Zer esan nai du Kristauak?

E. Kristoren gizona.

G. Zer aditzen dezu Kristoren gizonaz?

E. Jesu Kristoren sinismen, edo Fedea duena, zeña Bateoan artu zuen, ta bera serbitzera eskeñirik dagoena.

G. Zein da Kristauaren siñalea?

E. Gurutze Santua.

G. Zergatik?

E. Zeren dan Kristo gurutzean josiaren antza, zeñak an erosi, edo erredimitu giñduen.



- G. Zenbat gisatara egiten du Kristauak siñale ori?
 E. Bitara.
 G. Zein dira?
 E. Ziñatzea, ta santiguatzea.
 G. Zer da ziñatzea?
 E. Eskuieko beatz andiaz hiru gurutze egitea: Lenbizikoa, bekokian: Bigarrena, aoan: Hirugarrena, bularrean, gure Jaungoikoarekin hitze-giñaz.
 G. Erakutsi, nola.
 E. Gurutze Santuaren siñaleagatik geren etsaietatik libra gaitzatu, gure Jaungoikoa.
 G. Zergatik ziñatzen zera bekokian?
 E. Pensamentu gaiztoetatik Jainkoak libra gaitzan.
 G. Zergatik aoan?
 E. Hitz gaiztoetatik Jainkoak libra gaitzan.
 G. Zergatik bularrean?
 E. Egite, ta gogo gaiztoetatik Jainkoak libra gaitzan.
 G. Zer da santiguatzea?
 E. Eskuieko beatz biakin gurutze bat egitea bekokitik bularrera, ta ezkerreko sorbaldatik eskuiekora, Hirutasun Santuari deituaz.
 G. Erakutsi, nola?
 E. Aitarean, ta Semearen, ta Espiritua Santuaren izenean. Amen.
 G. Noiz egin bear dezu siñale ori?
 E. Egiteren bat asitzen degun guzian, edo neke, tentazio, edo perillen batean ikusten geranean, batez ere oietik jaikitzean, etxetik irtetean, Elizan sartzean, jaterako, ta oierakoan.
 G. Zergatik orrenbeste bider?
 E. Zeren beti, ta leku guzian gure etsaiak jarraitzen, eta gudu egiten diguten.
 G. Zer etsai dira oriek?
 E. Demonioa, mundua, ta aragia.
 G. Orrela, badu Gurutzeak orien kontra birtute, edo indarra?
 E. Bai, Aita.
 G. Nondik du Gurutzeak birtute ori?
 E. Antxe Kristok bere heriotzarekin garaitu zituelako.
 G. Gurutzea adoratzean nola esaten dezu?
 E. Adoratzean, ta bedekatzean zaitugu Kristo, zure Gurutze Santuagatik mundua irabazi, edo erredimitu zenduena.

Doktrinaren berezimena

Ikusi degu, nola zeran Kristaua, Kristauaren izenez, ta siñale; Baña esan zadazu orain:

G. Zenbat gauza jakitera dago obligatua Kristaua, usu arrazoizkoa idukitzera datorrenean?

E. Lau gauza.

G. Zein dira?

E. Jakitea sinistu bear duena, erregutu bear duena, egin bear duena, ta artu bear duena.

G. Nola jakingo du sinistu bear duena?

E. Jakiñaz Kredoa, edo Sinismeneko Artikuloak.

G. Nola jakingo du erregutu bear duena?

E. Jakiñaz Aita gurea, ta Elizaren beste gañeruntzeko erreguak.

G. Nola jakingo du egingo duena?

E. Jakiñaz Jainkoaren Legeko Aginteak, ta Eliza Ama Santarenak ta miserikordiazko egiteak.

G. Nola jakingo du artu bear duena?

E. Jakiñaz Eliza Ama Santuaren Sakramentuak.

Lenbiziko Doktrinaren Partea

zeñean azaltzen dan Kredoa, ta Sinismeneko Artikuloak

G. Gatozela lenbizikora, esazu: Nork esan zuen Kredoa?

E. Apostoloak.

G. Zertako?

E. Sinismen Santua guri erakasteko.

G. Ta zuk zertako esaten dezu?

E. Kristauak degun sinismena aitortzeko.

G. Zer da sinismen, edo Fedea?

E. Ikusi ez genduen sinistea.

G. Ikusi zenduen Jesu Kristo jaiotzen?

E. Ez, Aita.

G. Ikusi zenduen bera hiltzen, edo zeruetara igotzen?

E. Ez. Aita.



- G. Sinisten dezu?
- E. Bai, Aita, sinisten det.
- G. Zergatik sinisten dezu?
- E. Zeren gure Jainkoak ala agertu duen, ta Eliza Ama Santak ala erakusten digun.
- G. Zer gauza dira, Kristauak bezela artu, ta sinisten dituzunak?
- E. Eliza Ama Santa Erromakoak artu, ta sinisten dituenak.
- G. Zer gauza dira zuk, eta ark artu, ta sinisten dituzutenak?
- E. Fedeko Artikuloak, batez ere Kredoan dauden bezala.
- G. Zer gauza dlrade Artikulo Fedekoak?
- E. Dira Fedeko misteriorik andienak.
- G. Zertako dira Fedeko Artikuloak?
- E. Gure Jaungoikoaren, eta Jesu Kristo gure Eroslearen berri banaa edo notizia distintoa emateko.
- G. Zein, edo zer gauza da gure Jaungoikoa?
- E. Da esan al, ta pensa al ditekean gauzarik andiena, ta miragarriena; Jaun bat fin gabe ona, ahalsua, jakinsua, justua, gauza guzien asiera, ta fiña.
- G. Hirutasun guziz santua nor da?
- E. Da Jaungoikoa bera, Aita, Semea, ta Espiritu Santua, hiru Perso-
na banak, edo distintoak, ta Jaungoiko egiazko bakar bat.
- G. Aita Jainkoa da?
- E. Bai, Aita.
- G. Semea Jainkoa da?
- E. Bai, Aita.
- G. Espiritu Santua Jainkoa da?
- E. Bai, Aita.
- G. Hiru Jaungoiko dirade?
- E. Ez, Aita, ez bada Jaungoiko egiazko bakar bat.
- G. Aita Semea da?
- E. Ez, Aita.
- G. Espiritu Santua da Aita, edo Semea?
- E. Ez, Aita.
- G. Zergatik?
- E. Zeren Personak banaak, edo distintoak diran, izan arren Jaungoi-
ko egiazko bakar bat.
- G. Nola da Jainkoa guziz ahalsua?
- E. Zeren bere podere bakarrarekin nai duen guzia egiten duen.
- G. Nola da Egille, edo Kriatzallea?
- E. Zeren ezerezetik guzia egin zuen.

- G. Nola da Salbatzallea?
- E. Zeren grazia ematen duen, eta pekatuak barkatzen dituen.
- G. Nola da Jainkoa Glorifikatzallea?
- E. Zeren gloria ematen dion aren grazian dagoen, edo perseberatzen duenari.
- G. Badu Jainkoak guk bezala gorputz itxurarik?
- E. Jainkoa danez, ez, zeren dan Espiritu purua: baña gizona danez, bai.
- G. Jainkozko hiru Personetatik zein egin zan gizon?
- E. Bigarrena, zeña dan Semea.
- G. Aita egin zan gizon?
- E. Ez, Aita.
- G. Espiritu Santua egin zan gizon?
- E. Ez, Aita.
- G. Zein, bada?
- E. Bakarrik Semea, zeñari gizon egiñik deritzan Jesu Kristo.
- G. Orrela nor, edo zein da Jesu Kristo?
- E. Da Jaungoiko bizi egiazkoaren Semea, zeña gizon egin zan gu erredimitzearen, eta bizitzaren exenploa ematearren.
- G. Zer esan nai du Jesusek?
- E. Salbatzallea.
- G. Zertatik salbatu ginduen?
- E. Gure pekatuetatik, eta demonioaren mendetik.
- G. Zer esan nai du Kristok?
- E. Oleatua, edo unjitua.
- G. Zerzaz unjitua izan zan?
- E. Espiritu Santuaren graziaz, ta doaiez.
- G. Jesu Kristo gure Jauna nola sortu, ta jaio zan Ama Birjiñagandik?
- E. Jainkoak gauza naturalaz gañera, ta mirariz egiñaz.
- G. Ta gero aren Ama beti Birjiña bizitu zan?
- E. Bai, Aita, beti betiro.
- G. Zergatik gurutzeko heriotza artu izan nai zuen?
- E. Gu pekatutik, eta heriotzatik libratzeagatik.
- G. Zer aditzen dezu, Jesu Kristo gure Jauna hillezkero jatxi zan infer-
nuaz?
- E. Ez det aditzen kondenatuen lekua, baizik zeñean Justuak zeuden.
- G. Nola jatxi zan?
- E. Kristoren anima Jainkotasunari berari uniturik edo bat egiñik.
- G. Ta aren gorputza nola geratu zan?



E. Uniturik Jainkotasunari berari.
 G. Hirugarren egunean nola piztu zan?
 E. Biurtzen zirala unitzera, edo bat egitera aren gorputza, ta anima gloriosoa, ez geiagoren geiago hiltzeko.
 G. Nola zeruetara igo zan?
 E. Berezko birtutearekin.
 G. Zer da eseririk egotea Aita Jainkoaren eskuieko aldetik?
 E. Jainkoa danez berak adinbat gloria idukitzea, ta gizona dalez, bes-tek iñork ere baño andiagoa.
 G. Noiz etorriko da biziak, eta hillak juzgatzeraz?
 E. Munduaren azkenean.
 G. Ta hill guziak piztu bear dute orduan?
 E. Bai, Aita, len zituzten gorputz, ta animakin berakin.
 G. Zer sinisten dezu esatean, Sinisten det Santuen Komunioa?
 E. Kristau fielak dutela partea besteen ondasun espiritualetan, mienbro gorputz batekoak bezala, zeña dan Eliza.
 G. Zein, edo zer gauza da Eliza?
 E. Da Kristau fielen kongregazioa, zeñen burua dan Aita Santua.
 G. Nor da Aita Santua?
 E. Da Erromako Pontifize andia lurrean Kristoren ordekoa, edo Bikarioa, zeñi obeditzera guziok gaude obligatuak.
 G. Kredo, ta Artikuloaz gañera sinisten dezu beste gauzarik?
 E. Bai, Aita, Eskritura Sagraduan dagoen guzia, ta Jainkoak Elizari erakutsi dion guzia.
 G. Zer gauza dira oriek?
 E. Ez ori niri galdetu, zeren ez dakidan Erakasleak ditu Eliza Ama Santak, zeñak jakingo duten eranzuten.
 M. Ondo diozu, zeren Maisuai dagokien eta ez zuri Fedeko gauza guzien kontu banaro ematea; zuentzat asko da Artikuloen kontu Kredoan dauden bezala ematea.

Doktrinaren bigarren Parte zeñean azaltzen dan eskatu bear dana, ta Eliza Ama Santaren Orazioak

Ikusi degu nola dakizun sinistu bear dana, zeña dan lenbizikoa: gatozen bigarrenera, zeña dan eskatu bear dana. Esazu:

G. Nork esan zuen Aita gurea?
 E. Jesu Kristok.
 G. Zertako?
 E. Erregu egiten guri erakasteko.
 G. Zer gauza da erregutzea?
 E. Da Jaungoikoagana biotza jasotzea, ta mesedeak eskatzea.
 G. Aita gurea esatean norekin hitz egiten dezu?
 E. Gure Jaungoikoarekin.
 G. Non dago gure Jaungoikoa?
 E. Leku guzian, berezkiro zeruan, ta Aldareko Sakramentu guziz santuan.
 G. Orazioen artean onena zein da?
 E. Aita gurea.
 G. Zergatik?
 E. Zeren Kristok Apostoloen eskez bere aotik esan zuen.
 G. Zergatik geiago?
 E. Zeren zazpi eskari karidade guzian ondekidatuak dituen.
 G. Zein dira?
 E. Lenbizikoa da, Santifika bedi zure izena.
 G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
 E. Jainkoaren izena ezagutua, ta honratua izan dedilla mundu guzian.
 G. Zein da bigarrena?
 E. Betor gugana zure Erreinoa.
 G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
 E. Agindu, edo erreña dezala Jainkoak gure animetan graziaz emen lurrean, ta digula gero gloria.
 G. Zein da hirugarrena?
 E. Egin bedi zure borondatea nola zeruan ala lurrean.
 G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
 E. Jainkoaren borondatea egin dezagula lurrean gaudenok, zeruan dohatsuak egiten duten bezala.
 G. Zein da laugarrena?
 E. Egun iguzu geren egunoroko ogia.
 G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
 E. Eman dizagula Jaungoikoak gorputzarentzat bear dan mantenua, ta animarentzat graziazko espirituala, ta Sakramentuak.
 G. Zein da bostgarrena?
 E. Barka zaizkigutzu geren zorrak, guk geren zordunai barkatzen dieztegun bezala.



- G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
- E. Jainkoak barka dizaizkigula gure pekatuak guk iraindu gaituztenai, ta gaitz egin digutenai barkatu diegun bezala.
- G. Zein da seigarrena?
- E. Ez gaitzatzula utzi tentazioan erorten.
- G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
- E. Jainkoak ez gaitzala utzi erorten, ta ez konsentitzen pensamentu gaitzo, ta tentazioetan, zeñakin demonioak pekatuan erorierazo nai gaituen.
- G. Zein da zazpigarrena?
- E. Baizik libra gaitzatzu gaitzetik.
- G. Zer eskatzen dezu eskari orretan?
- E. Jainkoak libra gaitzala gaitz guzietatik, ta animako, ta gorputzeko perilletatik.
- G. Zergatik, bada, esaten dezu lenengoan: Aita gurea, zeruetan zaudena?
- E. Biotza Jainkoagana jasotzeko, ta ari humiltasun, ta konfianzarekin eskatzeko.
- G. Amen, azkenean esaten dezun hitz ark, zer esan nai du?
- E. Ala biz, edo izan dedilla.
- G. Zer orazio esaten diozkatzu berezkiro Ama Birjiñari?
- E. Abe Maria, ta Salbea.
- G. Esazu, Abe Maria nork esan zuen?
- E. San Gabriel Aingeruak etorri zanean gure Ama Birjiña salutatzer.
- G. Nork esan zuen Salbea?
- E. Eliza Ama Santak dauka arturik.
- G. Zertako?
- E. Ama Birjiñari fabore eskatzeko
- G. Abe Maria, edo Salbea esatean, norekin hitzegiten dezu?
- E. Gure Ama Birjiña Maria guziz Santarekin.
- G. Nor da Santa Maria gure Ama Birjiña?
- E. Da anre bat birtutez betea, zeña dan Jainkoaren Ama, ta zeruan dagoena.
- G. Ta nor, edo zer da aldarean dagoena?
- E. Da zeruan dagoenaren imajiña, edo antza.
- G. Zertako dago an?
- E. Arekin zeruan dagoenaz oroi gaitezen, ta aren imajiña delako erreberenzia egin diozagun.
- M. Bada ori bera beste Santuen imajiñakin egin bear dezu.
- G. Egin bear degu erregu Aingeru, ta Santuai ere?

- E. Bai, Aita, gure bitartekoai bezala.
- G. Zer gauza dira Aingeruak?
- E. Espiritu dohatsu, zeruan Jainkoa gozatzen dauden batzuek.
- G. Zertako gure Jaungoikoak egin zituen?
- E. Beti betiro alabatu, ta bedeikatu dezaten.
- G. Ta geiago zertako?
- E. Bere ministroak bezala Eliza zuzendu, ta gizonak gorde ditzen.
- G. Orrela zuk ere dezu gordetzen zaituen Aingerua?
- E. Bai badet, ta gizon bakoitzak du berea.
- M. Bada debozio andia iduki zaiozu, ta berari enkomen dazaitetz egunoro.

Hirugarren Partea zeñean azaltzen dan egin beardana

- Ikusi degu nola dakizun sinistu, ta erregutu bear dezuna: ikusi deza-
gun nola dakizun egin bear dezuna.
- G. Esazu zein dan Jainkoaren Legeko lenbiziko agintea?
- E. Jainkoa gauza guzien gañean onestea.
- G. Nork onesten du Jainkoa?
- E. Aren aginteak gordetzen dituenak.
- G. Zer da bera gauza guzien gañean amatzea?
- E. Guziak galtzea naiago izatea, bera ofenditzea baño.
- G. Zertara geiago obligatzen gaitu aginte onek?
- E. Bera bakarrik gorputzeko ta animako erreberenziarik andienaz adoratzera, fede biziaz beragan sinisten, ta esperatzen degula.
- G. Nork onen kontra pekatu egiten du?
- E. Idolo, ta Jainko gezurrezkoak adoratzen, ta orietan sinisten duenak.
- G. Nork geiago?
- E. Sinisten duenak aztinanzan, edo sorgindurian edo gauza donge-
deak egiten dituenak.
- G. Zein da bigarrena?
- E. Aren izen santuaz juramenturik alferrik, edo utsean ez egitea.
- G. Nork esaten da juramentu alperrik egiten duela?
- E. Egia gabe, justizia gabe, ta premia gabe egiten duenak.
- G. Ta juramentu alferrik egitea kriaturak-gatik pekatu da?
- E. Bai, Aita, zeren aietan Egilleari egiten zaion.



- G. Zer erremedio juramentu alferrik ez egiteko?
 E. Oitutzeta esatera bai, edo ez, Kristok erakasten digun bezala.
 G. Zein da hirugarrena?
 E. Jaiak santifikatzea.
 G. Nork jaiak santifikatzen ditu?
 E. Meza osoa enzuten duenak, ta bearrik premia gabe orietan egiten ez duenak.
 G. Zein da laugarrena?
 E. Aita, ta Ama honratzea.
 G. Nork gurasoak honratzen ditu?
 E. Obeditzen, sokorritzen, ta erreberenziatzen dituenak.
 G. Nor besterik aditzen da gurasoen izenean?
 E. Nagusiagoak edade, dignidade, ta zuzenbidean.
 G. Zein da bostgarrena?
 E. Ez hiltzea.
 G. Zer agintzen da aginte onetan?
 E. Ez egitea iñori gaitzik, ez egite, ez hitz, ta ez gogoz ere.
 G. Zein da seigarrena?
 E. Ez aragizko pekaturik egitea.
 G. Zer agintzen da aginte onetan?
 E. Garbi, eta kastoak izan gaitezela pensamen hitz ta egiteetan.
 G. Zein da zazpigarrena?
 E. Ez ostutzea.
 G. Zer agintzen da aginte onetan?
 E. Ez kentzea, ez idukitzea, ez nai izatea besterena, bere jabearen borondatearen kontra.
 G. Zein da zortzigarrena?
 E. Testimonio gezurrezkorik ez egozte, ta ez gezurrik esatea.
 G. Zer agintzen da aginte onetan?
 E. Ez gaizki juzgatzea ezeri ez dagokiola, edo erraz geidea, ez esatea, ta ez enzutea aren kulpak, edo utsegiteak.
 G. Nork ausitzen du aginte au?
 E. Arrazoiaren kontra juzgatzen duenak, gaizki esaten, goarpea agertzen, edo gezurra esaten duenak.
 G. Zer eragozten da bederatzigarren, ta amargarren agintean?
 E. Aragiaren gurariak, ta ondasunen gogoa.
 M. Esan itzatzu Eliza Ama Santaren aginteak.

ELIZA AMA SANTAREN AGINTEAK DIRADE BOST

Lenbizikoa, Meza osoa enzutea Igande, ta Jai-egun guzietan. Bigarrena, urtean beiñ gutxienaz aitortzea, edo lenago, heriotzaren perillik uste bada, edo komulgatu bear bada.

Hirugarrena, uda berriko Pazkoan komulgatzea.

Laugarrena, Eliza Ama Santak agintzen duenean barautzea. Bostgarrena, Amarren, ta Primiziak Jainkoaren Elizari pagatzea.

G. Zertako dira aginte oiek?

E. Jainkoarenak obeto gordetzeko.

M. Esanitzatzu Miserikordiazko egiteak.

Miserikordiazko egiteak dirade amalau, zazpi espiritukoak, ta zazpi gorputzekoak

ESPIRITUKOAK DIRADE OIEK

Lenbizikoa, ez dakienari erakastea.

Bigarrena, bearra daukanari konseju on ematea.

Hirugarrena, utsegiten duena zenzatzea.

Laugarrena, irainak barkatzea.

Bostgarrena, tristea konsolatzea.

Seigarrena, gure geideen gaitzak, ta argaltasunak pazienziak eramatea.

Zazpigarrena, biziakgatik, ta hillakgatik Jainkoari erregutzea.

ZAZPI KORPORALAK DIRADE OIEK

Lenbizikoa, heriak bisitatzea, edo ikustea.

Bigarrena, gose danari jaten ematea.

Hirugarrena, egarri danari edaten ematea.

Laugarrena, katibua erreskatatzea.

Bostgarrena, premia duena janzitzea.

Seigarrena, bidaisariari ostatua ematea.

Zazpigarrena, hillai obi ematea.

G. Zergatik derizte miserikordiazkoak?

E. Zeren justiziaz zor ez diran.

G. Noiz obligatzen dute agintearen bean?

E. Estutasun andi, gizon jakinsuen iritzira, grabeak diranetan.



Laugarren Partea
zeñean azaltzen diran
Sakramentu artu bear diranak

Ikusi degu nola dakizun sinistu, erregutu; ta egin bear dezuna; ikusi dezagun nola dakizun artu bear dezuna, zella dan atzeneko gauza. Esan itzatzu Sakramentuak.

ELIZA AMA SANTUAREN SAKRAMENTUAK DIRADE
ZAZPI

Lenengo bostak premiazkoak dirade, edo artu bearrak, egitez, edo borondatez, zeñak gabe ezin salba diteke gizona menprezioz uzten badi-tu. Beste biak dirade borondatezkoak.

Lenbizikoa, Bateoa.
 Bigarrena, Konfirmazioa.
 Hirugarrena, Penitencia.
 Laugarrena, Komunioa.
 Bostgarrena, azkeneko Oleazioa.
 Seigarrena, Ordena.
 Zazpigarrena, Ezkontza.

G. Zer gauza dira Sakramentuak?

E. Dira siñale agiri batzuek, Jesu Kristo gure Jaunak egiñak, aiezaz guri emateko bere grazia, ta birtuteak.

G. Zer gauza da grazia?

E. Da izate Jainkozko bat, zeñak gizona egiten duen Jaungoikoaren seme, ta zeruaren jabegai.

G. Zer birtute, graziarekin batean, Sakramentuak ematen dituzte?

E. Batez ere hiru, teologalak, eta Jainkoaganonzkoak.

G. Zein dirade?

E. Fedea, Esperanza, ta Karidadea.

G. Zer gauza da Fedea?

E. Ikusi ez genduen sinistea, zeren Jainkoak ala erakutsi duen.

G. Zer gauza da Esperanza?

E. Esperatzea gloria, Jainkoaren grazia, ta gure egite onak bitarteko dirala.

G. Zer gauza da Karidadea?

E. Gauza guzien gañean Jainkoa onestea, ta gure geideak geren buruak bezala, aiekin egiten degula, berak gurekin egitea naiko gendukeana.

G. Zertako egiña izan zan Bateoko Sakramentua?

E. Kentzeko jatorrizko pekatua, ta bateatzen danean arki litekean beste edozein.

G. Zer gauza da jatorrizko pekatua?

E. Kulpa gure lenengo gurasoetatik jaraunsia, zeñekin guziok jaio-tzen geran.

G. Zertako da Konfirmazioko Sakramentua?

E. Gu konfirmatzeko, ta sendotzeko, Bateoan artu genduen Fedean.

G. Zertako da Penitenziako Sakramentua?

E. Bateoa ezker egiñikako pekatuak barkatzeko.

G. Zer pekatu dira oiek?

E. Heriotzkoak edo mortalak, baita benialak ere.

G. Zer da pekatu mortala?

E. Da esatea, egitea, pensatzea, edo deseatzea zerbait Jainkoaren Legearen kontra gauza, edo materia grabean.

G. Zergatik deritza mortala, edo heriozkoa?

E. Zeren hiltzen duen ori egiten duenaren anima.

G. Zenbat gauza ditu Penitenziak kenzeko pekatu mortala?

E. Hiru.

G. Zein dira?

E. Damu biotzekoa, aitormen aozkoa, ta ordaintza egitezkoa.

G. Eta pekatu mortalean erortzen dan guzian bear du batek konfe-satu bereala, barka dakion hura?

E. Ondo litzake, baña ez da gauza bearra.

G. Zer egin bear du bada?

E. Iduki egiazko bere pekatuen damua, gogo, edo proposituarekin emendatzeko, ta konfesatzeko Eliza Ama Santak agintzen duenean.

G. Zer gauza da pekatu beniala?

E. Da bide, edo disposizio bat pekatu mortalerako.

G. Zergatik deritza beniala?

E. Zeren gizona erraz artan erorten dan, ta erraz bera barkatzen zaion.

G. Zenbat gauzagatik barkatzen zaio?

E. Bederatzigatik.

G. Zein dira?

E. Lenbizikoa, Meza enzuteagatik.

Bigarrena, Komulgatzeagatik.

Hirugarrena, aitormen jeneralagatik.

Laugarrena, Obispoaren bendizioagatik.



Bostgarrena, ur bedeikatuagatik.

Seigarrena, ogi bedeikatuagatik.

Zazpigarrena, Aita gurea esateagatik.

Zortzigarrena, sermoia enzuteagatik.

Bederatzigarrena, Jainkoari barkazioa eskatuaz bularra jotzeagatik.

G. Zertako da Komunioko Sakramentu guziz Santua?

E. Bear dan bezala artuaz, gure animen mantenua izan dedin, ta grazia geitu dizagun.

G. Zer artzen dezu Komunioko Sakramentu guziz Santuan?

E. Kristo Jaungoiko, ta gizon egiazkoa, zeña Aldareko Sakramentu guziz Santuan egiaz dagoen.

G. Zertako da azken Oleazioko Sakramentua?

E. Hiru gauzatarako.

G. Zein dira?

E. Lenbizikoa, igaroko bizitza gaiztoaren arrasto, ta siñaleak kentzeko.

Bigarrena, animari demonioaren tentazioen kontra indarra emateko.

Hirugarrena, gorputzari, konbeni bada osasuna emateko.

G. Zertako da Ordenako Sakramentua?

E. Konsagratzeko, ta ordentzeko Elizari dagozkion Ministroak, nola diran Sazerdoteak, Diakonoak, ta Subdiakonoak.

G. Zertako da Ezkonzako Sakramentua?

E. Ezkonzeko, ta ezkonduai grazia emateko, zeñekin alkarren artean bizi ditezen pakean, ta humeak zerurako azi ditzaten.

PEKATUEN BURUAK DIRADE ZAZPI

Lenbizikoa, anditasuna edo soberbia.

Bigarrena, abarizia.

Hirugarrena, luxuria.

Laugarrena, aserre, edo ira.

Bostgarrena, gula.

Seigarrena, ezin ikusia.

Zazpigarrena, nagitasuna.

G. Zergatik deitu diezu pekatuen buruak zazpi oriei, zeñai geienean heriotzkoak derizten?

E. Derizte kapitalak, zeren buruak diran, orietatik jaiotzen diran beste bizioen iturri, ta sustraiak bezela; ta deitzea heriozko, edo mortalak ez dagokie ain ondo, bada askotan ezdirade benialak baizen.

G. Noiz dira mortalak?

E. Jainkoaren, edo geidearen karidadearen kontra diranean.

G. Noiz dira karidadearen kontra?

E. Orieaz Jainkoaren, edo Elizaren aginteren bat ausitzen danean gauza grabea.

G. Zer da anditasun, edo soberbia?

E. Gurari ordena bageko bat besteak baño geiago izateko.

G. Zer da abarizia?

E. Gaitz gura ordena bageko bat, edo ondasunen gogoa.

G. Zer da luxuria?

E. Gaitz gura ordena bageko bat aragizko atsegin itxusiena.

G. Zer da aserre, edo ira?

E. Gaitz gura desordenatu bat benganza artzeko.

G. Zer da gula?

E. Gaitz gura desordenatu bat jateko, ta edateko.

G. Zer da ezin-ikusia, edo enbidia?

E. Damu bat besteren onaz.

G. Zer da nagitasuna?

E. Gauzak ondo egitean biotzeko argaltasun, edo atzerapena.

ZAZPI BIZIO OIEN KONTRA DIRADE ZAZPI BIRTUTE

Soberbiaren kontra, humiltasuna.

Abariziaren kontra, eman naitasuna.

Luxuriaren kontra, garbitasuna.

Iraren kontra, safira.

Gularen kontra, gogiroa.

Enbidiaren kontra, onesguna.

Nagitasunaren kontra, arreta.

ANIMAREN ETSIAK,

ZEÑETATIK IGES EGIN BEAR DEGUN DIRADE HIRU

Lenengoa, da mundua.

Bigarrena, demonioa.

Hirugarrena, aragia.

G. Nola iges egiten da mundutik?

E. Aren anditasun, ta banidadeen menprezioaz.

G. Nola iges egitenda demonioagandik?

E. Orazio, ta humiltasunarekin.

G. Nola iges egiten da aragiagandik?



E. Au garaitzen da gogortasunakin, azote, ta barauakin: au da etsa-rik andiena, zeren gerengandik aragia ezin kendu degun, baña bai mun-dua, ta demonioa.

BIRTUTE TEOLOGAL, EDO JAINKOAGANONZKOAK DIRADE HIRU

Fedea, Esperanza, ta Karidadea.

BIRTUTE KARDINALAK DIRADE LAU

Lenena, zinzotasuna.

Bigarrena, Justizia.

Hirugarrena, sendagalla.

Laugarrena, Gogiroa.

GORPUTZEKO SENTIDUAK DIRADE BOST

Lenengoa, begiaz ikustea.

Bigarrena, belarriaz enzutea.

Hirugarrena, aoaz gusto artzea.

Laugarrena, sudurraz usai egitea.

Bostgarrena, eskuaz jotzea, edo ikuitzea.

G. Zertako Jainkoak eman zizkigun sentidu, ta beste mienbro guziak?

E. Guziakin bera serbi genzan gauza guzietan.

ANIMAREN POTENZIAK DIRADE HIRU

Oroitza, adimentua, ta borondatea.

G. Zertako Jainkoak oroitza eman zigun?

E. Beraz, ta bere on egiteaz oroi gindezen.

G. Zertako Jainkoak adimentua eman zigun?

E. Ezagutzeko gure Jauna, ta beragan pensatzeko.

G. Zertako eman zigun borondatea?

E. Ontasunik andiena bezala bera onesteko, ta geidea beragatik.

ESPIRITU SANTUAREN DOAIK DIRA ZAZPI

Lenbizikoa, Jakintasunezko Doaia.

Bigarrena, Adimentuzko Doaia.

Hirugarrena, Konsejuzko Doaia.

Laugarrena, Zienziatzko Doaia.

Bostgarrena, Indarkiñezko Doaia.

Seigarrena, Piedadezko Doaia.

Zazpigarrena, Jainkoaren Beldurtasunezko Doaia.

ESPIRITU SANTUAREN FRUTUAK DIRA AMABI

Lenengoa, Onesguna.

Bigarrena, Pakea.

Hirugarrena, biotzeko anditasuna.

Laugarrena, Benignidatea.

Bostgarrena, Fedea.

Seigarrena, Kontinenzia.

Zazpigarrena, Gozaldia.

Zorzigarrena, safira.

Bederatzigarrena, Ontasuna.

Amargarrena, mansotasuna.

Amaikagarrena, Modestia.

Amabigarrena, Garbitasuna.

DOATSUTASUNAK DIRA ZORZI

1. Doatsuak espirituz pobre diranak, zeren aiena dan zeruetako erreinoa.

2. Doatsuak mansoak, zeren gozatuko duten lurra.

3. Doatsuak negar egiten dutenak, zeren konsolatuak izango diran.

4. Doatsuak Justiziaren gosea, ta egarria dutenak, zeren aseak izan-go diran.

5. Doatsuak miserikordiosoak, zeren miserikordia arkituko duten.

6. Doatsuak biotz garbikoak, zeren Jainkoa ikusiko duten.

7. Doatsuak paketsuak, zeren Jainkoaren Semeak deituak izango diran.

8. Doatsuak Justiziagatik nekeak igarotzen dituztenak, zeren aiena izango dan zeruetako erreinoa.

G. Zer esan degu orain?

E. Zorzi Doatsutasunak.

G. Zer gauza dira Doatsutasun oiek?

E. Birtuteen, ta Espiritu Santuaren Doaien egiterik onenak.

G. Nor dira espirituz pobreak?

E. Ez gauza bearretan ere andizur, eta ondasunik nai ez dutenak.

G. Nor dira mansoak?

E. Ez dutenak irarik, ta ezta aserraldiaren siñalerik ere.

G. Nola gozatzen dute lurra?



- E. Zeren beren buruen Jaun, edo Jabe diraden.
- G. Nor dira negar egiten dutenak?
- E. Atsegin, zillegiak ere, utzitzen dituztenak.
- G. Nor dira Justiziaren gosea, ta egarria dutenak?
- E. Ahalegiñez bear dutena gauza guzietan egiten dutenak.
- G. Nor dira miseriakordioak?
- E. Guziz beraa diranak ez ezagunakin ere.
- G. Nor dira biotz garbidunak?
- E. Beren gaitz guraetan guziz mortifikatuak diranak.
- G. Nor dira paketsuak?
- E. Berengan, eta besteetan pakegille diranak.
- G. Nor dira Justiziagatik nekeak igarotzen dituztenak?
- E. Sendo daudenak guzian, persegituak izan arren.
- G. Zergatik derizte oiei Doatsutasunak?
- E. Zeren aietan dagoen bizitza onetako doatsutasuna, ta bestekoaren ustea.
- M. Ara Jainkoak, ene seme, guziok eraman gaitzala. Ala biz.

Onaraño da Aita Gaspar Astete
beneragarriaren Katezismo,
edo Doktrina.

Acto de contrición

Señor mio Jesu Christo, Dios y hombre verdadero, Criador y Redemptor mio, por ser Vos quien sois, y por que os amo sobre todas las cosas, me pesa de haveros ofendido; propongo firmemente, etc.

Onesdamuzko egitea

Nere Jesu Kristo Jauna, Jainko, ta Gizon egiazkoa, nere Kriadorea, ta Redemptorea, zu zeranagatik, ta zeren amatzen zaitudan gauza guzien gañean, damu det, Jauna, damu det biotz guzitik zu ofendituaz, propositu firmearekin ez geiago ofenditzeko, ta pekatuaren bide guzietatik alde egiteko, ta nere pekatuak aitorzeko, ta ematen zadan penitencia egiteko: Eskeintzen dizut nere bizitza, egite, ta nekeak nere pekatuen ordainzan;

eta nola eskatzen dizudan, ala konfiatzen det zure ontasun, eta miseriakordia fingabea barkatu dizkidatzula, zure odol preziatu, pasio, ta heriotzaren merituak gatik, eta emango didazula grazia ondo bizitzeko heriotzako orduraño. Ala biz.

Advertencia al Lector

Aunque el Autor de este Librito no puso en el el Acto de Contrición, se añade aqui con especial cuydado por su suma importancia. Para lo qual se ha de saber lo primero, que uno de los medios más eficaces para asegurar la salvacion de las almas alcanzando el perdon de los pecados, y conseguir una preciosa muerte, es esta Devoción de hacer, como se dirà, el Acto de Contricion. Por muchas Devociones que se rezen, estas no justifican al que està en desgracia de Dios; mas es tanta la eficacia de un Acto de Contricion, que al punto que se hace de corazon, convierte al pecador en Amigo de Dios, y se le perdonan luego todos quantos pecados ha hecho, aunque fueran mas, y mayores que quantos han cometido todos los condenados del infierno: y solo le queda la obligacion de confesarlos despues.

Lo segundo: para conseguir el perdon de los pecados con el acto de Contricion, no basta rezar solamente, ó decir sus palabras con la boca, ni con el entendimiento, ó con la atencion, con que se rezan otras oraciones; sino que es necessario hacerlo, ó decir con verdadero afecto de la voluntad, y muy de corazon.

Lo tercero: aunque es muy bueno el rezar como arriba se pone siempre que se pueda todo el acto de Contricion, mas no es necessario, y quando hay algun peligro, basta decir de corazon: Señor, por ser Vos quien sois, y por que os amo sobre todas las cosas, me pesa de haveros ofendido, con proposito dela enmienda.

Lo quarto: conviene, que se haga este acto de contricion à la mañana al ofrecer à Dios las obras para no caer en pecado. Lo 2º à la noche despues del examen de conciencia de cada dia, discurriendo brevemente por pensamientos, palabras y obras. Lo 3.º siempre que uno se halla en peligro de muerte, y no tiene comodidad de confessor, està obligado à hacerlo, si tiene conciencia de pecado mortal, ó duda de èl. Finalmente para asegurar cada uno su salvacion en tantas casas impensados de muer-



tes repentinas de cada dia, por mar, y tierra, debe hacerse muchas vezes al dia para no caer, y luego que uno cayese en pecado mortal.

Irakurlearentzat Oarra

Librutxo onetan bere Egilleak ifini ez bazuen ere Onesdamuzko Egitea, berariaz emen ifintzen da, zeren ain bearra dan. Orretarako jakin bear da lenengo bide, edo medio eragilleenetatik bat animen salbaziorako, pekatuen barkaziorako, ta heriotza on bat erdisteko, dala onesdamuzko aktu au, esango dan bezala, egitea. Beste debozio asko errezatu arren, oiek ez dute garbitzen pekatuan, edo Jainkoaren desgrazian dagoen anima; baña onesdamuaren indarra da ain andia, ze, biotzetik egiten dan puntu artan bertan, pekataria biurtzen du Jainkoaren adiskide, ta barkatzen zaizka bereala egin zituen pekatu guziak, kondenatu guziak egin dituztenak baño geiago, ta andiagoak balira ere: ta geratzen da gero aitortzeko obligado bakarrarekin.

Bigarrena: Onesdamu onekin pekatuen barkazioa irabazteko, ez da asko, errezatzea bakarrik, edo aoz hitz oriek esatea, ezta adimentuaz, edo beste erreguak egiten diran atenzioaz ere; baizik egin bear da, edo esan borondate osoaz, eta txit biotzetik.

Hirugarrena: gauza ain ona izan arren esatea al danean onesdamuzko aktu guzia, goien dagoen gisan, baña ez da premiazko gauza: eta estu estuan asko da biotzetik esatea: *Jauna, zu zeranagatik, ta zeren amatzen zaitudan gauza guzien gañean, zu ofendituaz damu det, propositu firmearekin ez geiago pekatu egiteko.*

Laugarrena: egin bear da onesdamuzko egite au Jainkoari obrak eskeintzean goizoro, pekatuan ez erortzeko. Bigarrena: gauoro konzienziako billatza egin ezkerro, egun artako pensamentuen, hitzen, ta egiteen kontu labur bat ateraaz. Hirugarrena: heriotzako perillean bat arkitzen dan guzian, eta konfesorerik, edo aitortzeko biderik ez duenean, dago obligaturik onesdamu ori idukitzera, baldin pekatu mortalik, edo orren dudarik beregan arkitzen badu. Azkenik: bakoitzak bere salbazioa aseguratzeko ainbeste ustegabeko heriotza gisatan, nola egunoro itsasoz, ta leorrez gertatzen diran, egunean maiz, edo askotan ori egin bear du ez erortzeko, ta bat pekatu heriozkoan erortzen dan bezala.